

1) *Lanbide eta zaletasunen sailkapena.*

- | | | | |
|------------------------------|-------------------------|---------------------------------|------------------------------------|
| 1. KAMIOI GIDARIA | 14. ETXEKO LANAK | 27. ABELTZAINA | 39. ARKEOLOGOA |
| 2. UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA | 15. FUTBOLARIA | 28. NEKAZARIA | 40. ZIENTZIALARIA |
| 3. AUTOBUS GIDARIA | 16. ORKESTRA ZUZENDARIA | 29. GOI MENDIZALEA | 41. BERTSOLARIA |
| 4. TAXISTA | 17. ERRUGBILARIA | 30. ZURGINA | 42. IDAZKARIA |
| 5. ENPRESA ZUZENDARIA | 18. DANTZARIA | 31. LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEA | 43. ZIRUJAUA |
| 6. ERIZAINA | 19. IRRATI ESATARIA | 32. ITURGINA | 44. BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEA |
| 7. SENDAGILEA | 20. KAZETARIA | 33. ESKULTOREA | 45. ONKOLOGIAKO DOKTOREA |
| 8. ATEZAINA | 21. TELEBISTA | 34. ELEKTRIZISTA | 46. MAKILLATZAILEA |
| 9. ILEAPANTZAILEA | 22. HARRIJASOTZAILEA | 35. HAUR-ZAINTZAILEA | 47. ARTZAIA |
| 10. SUKALDARIA | 23. JOALDUNA | 36. BURDINDEGIKO SALTZAILEA | 48. GARBITZAILEA |
| 11. BOTIKARIA | 24. MOZORROAK | 37. MEKANIKARIA | 49. IDAZLEA |
| 12. PILOTARIA | 25. EHIZTARIA | 38. GOZOTEGIKO SALTZAILEA | 50. ABOKATUA |
| 13. ZERBITZARIA | 26. JOSTUNA | | |

➤ **Sailkatu ondorengo lanbide eta zaletasunak egokien iruditzen zaizkizuen zutabeetan (zenbakiak kokatzearekin nahikoa da):**

Gizonezkoena	Emakumezkoena	Biena

➤ **Orain gauza bera egin ezazu, baina zure inguruan, hau da errealitatean ikusten duzunean oinarrituta:**

Gizonezkoek egiten dute	Emakumezkoek egiten dute	Biek egiten dute

- Alderik ikusten al duzu aurretik bete dituzun bi taula horien artean? Hala bada zergatik uste duzu gertatzen dela?



2) Nola ikusten duzu zure burua etorkizunean?

- Zein izango litzateke zure ametsetako lanbidea? Zergatik?
- Deskribatu nolakoa izango litzatekeen lan egun bat?
- Eta ametsik egin gabe, nola uste duzu izango dela zure lanbidea? Eta lanegun bat?
- Eta etxeko lanak?
- Nolakoa izango da zure aisialdia?

Mendaur
D.B.H.I. / I.E.S.O

ERIN BROCKOVICH FILMEAN OINARRITUTAKO GALDERAK

- 1) Nolakoa da Erin filmaren hasieran, lan bila doanean ?
- 2) Nolakoa da bere bizitza? Zer arazo edo zailtasun ditu? Nola saiatzen da konpontzen? Zer egingo zenuke zuk? Laguntza izango zenuke?
- 3) Nola aldatzen da istorioan zehar? Zein zailtasun berri ekartzen dizkio bere lan berriak? Nola konpontzen ditu? Antzeko zerbait gertatzen zaion norbait ezaguten al duzu?
- 4) Lana ondo egiten duela uste al duzu? Zer da, lan egiteko moduan, hoberen egiten duena?
- 5) Bere seme-alaba ondo zaintzen dituela uste duzu ala gutxi ikusten eta zaintzen dituela uste duzu? Ama ona ala txarra da? Zergatik? Zer egingo zenukeen zuk haren lekuan?
- 6) Bestela izango litzatekeela uste al duzu Jonh Brockovich balitz Erin Brockovich izan ordez? Kasu horretan, aita ona edo txarra litzateke hainbeste lan egiteagatik? Errudun sentituko al litzateke? Errudun sentiaraziko al liokete?
- 7) Nolakoa da Erin filmaren amaieran, nolakoa da bera? Nolakoa da bere bizitza?
- 8) Hobeto bizi da? Eta bere seme eta alaba? Eta besteak?
- 9) Bikote batekin hobe biziko litzakela uste al duzu lan hobe batekin baino?

Mendaur
D.B.H.I. / I.E.S.O

IRAKASLEARENTZAT BAKARRIK (orrialde hau ez fotokopiatu ikasleei):

Ikasleen arteko eztabaida eta hausnarketa bultzatzearren hona hemen zenbait proposamen:

1. galderarekin lotuta:

→ Janzkerari buruz ari badira, eztabaidatu ea zein erlazio dagoen itxura, pertsonalitate eta gaitasun pertsonalen artean.

2. galderarekin lotuta:

→ Gizona izan balitz, arazo berdinak izango al zituen?

